

B1EA 2019

Azterketa eredua

Règlement de l'examen

1) Nombre de jours/épreuves

Le certificat de niveau B1 de langue basque (B1EA) se compose d'un examen écrit et d'un examen oral. La moyenne doit être obtenue à chacun des deux.

Les examens se déroulent en deux phases et trois épreuves :

- Le premier jour ont lieu l'épreuve écrite et l'épreuve de compréhension orale.
- Le deuxième jour a lieu l'épreuve d'expression orale.

Les règles établies par l'Académie de la langue basque Euskaltzaindia seront prises comme référence de correction.

2) Durée

L'épreuve écrite se déroule en **1 heure et 45 minutes**, auxquelles il faut ajouter la durée nécessaire à l'exercice de la compréhension orale.

3) Description des épreuves

3.1) Épreuve écrite

L'épreuve écrite comporte deux exercices, mais cette même journée le candidat devra également réaliser celui de la compréhension de l'oral :

- Rédaction
- Compréhension des écrits
- Compréhension de l'oral

1) Egunak / proba kopurua

B1 mailako Euskara gaitasun agiria (B1EA), bi azterketaz osatua da: azterketa idatzia eta ahozkoa. Biak gainditzea beharrezkoa da B1EA lortzeko.

Azterketak bi fasetan eta hiru probatan iragaten dira:

- Lehen egunean proba idatzia eta entzunaren ulermena.
- Bigarren egunean ahozko adierazpen proba.

Euskaltzaindiaren arauak dira zuzentasunaren oinarrian.

2) Iraupena

Azterketa idatziak **oren 1 eta 45 minutu** irauten du, entzunaren ulermena neurtzen duen ariketa pasatzeko behar den denbora kontuan izan gabe.

3) Proben deskribapena

3.1) Azterketa idatzia

Azterketa idatziak bi ariketa ditu, baina egun horretan beste bat ere egiten da, entzunaren ulermenarena:

- Idazlana
- Irakurriaren ulermena
- Entzunaren ulermena

a) La rédaction

Un sujet de rédaction à choisir parmi deux propositions. Sujet à développer en 140 mots environ.

Pour valider cet exercice noté sur 30 le candidat devra obtenir un minimum de 15 points. L'obtention de la moyenne à l'exercice de rédaction est indispensable pour être reçu à l'écrit.

La qualification de la rédaction tiendra compte des exigences de niveau B1 concernant la correction, la justesse, la cohérence/cohésion et la richesse.

b) La compréhension des écrits

Des textes seront fournis au candidat et ce dernier devra répondre à des questions de compréhension.

Pour valider cet exercice, noté sur 10 il devra obtenir un minimum de 5 points.

La note minimale pour être reçu(e) à l'écrit est de 36/60.

c) Compréhension de l'oral

Cet exercice se déroulera le jour de l'épreuve écrite.

Pour cet exercice, le candidat entendra des extraits d'enregistrement audio et répondra à des questions : QCM, vrai/faux, mettre les images dans l'ordre etc.

Pour valider cet exercice noté sur 10, il devra obtenir un minimum de 5 points.

Une réponse erronée ne donnera pas lieu à un retrait de points.

3.2) La production orale

Elle comporte trois exercices :

- La présentation du candidat
- La présentation orale d'un document.
- Un entretien improvisé.

a) Idazlana

Bi gai eskainiko dira aukeran eta kandidatuak horietako bat garatu beharko du. Kandidatuak 140 hitz inguru idatzi beharko ditu.

30 punturen gain neurtua den ariketa hau gainditzeko, kandidatuak 15 puntu erdietsi beharko ditu gutienez. Idazlana gainditzea baitezpadakoa da azterketa idatzia eskuratzeko.

Idazlanaren kalifikaziorako ondoko alderdi hauek hartuko dira kontuan: B1 mailari dagozkion zuzentasuna, egokitasuna, diskurtsoaren koherentzia/kohesioa eta aberastasuna.

b) Irakurriaren ulermena

Testu batzuk eskainiko zaizkio kandidatuari, horiei buruzko ulermen galderai erantzun diezaien.

10en gain neurtua den ariketa hau gainditzeko, 5 puntu erdietsi beharko ditu gutienez.

Azterketa idatzia gainditzeko 36/60 nota lortzea beharrezkoa da.

c) Entzunaren ulermena

Azterketa idatziaren egunean egingen da ariketa hau.

Grabaketa zatiak entzuten ditu kandidatuak. Zati bakoitzari buruz galderak egingen zaizkio eta erantzun zuzena hautatu beharko du emanen zaizkion erantzunen artetik: aukera anitzeko ariketak, egia/gezurra, argazkiak ordenan ezartzeko etab.

10en gain neurtua den ariketa hau gainditzeko, 5 puntu erdietsi beharko ditu gutienez.

Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

3.2) Ahozko adierazpena

Hiru ariketa ditu:

- Kandidatuak bere burua aurkeztea
- Dokumentu baten ahozko azalpena.
- Bat-bateko elkarrizketa saioa.

Le candidat disposera de 10 minutes pour préparer le deuxième exercice. Un jury composé de deux examinateurs entendra les candidats en binômes. L'épreuve durera au total 15 minutes.

Pour valider cette épreuve notée sur 20, il devra obtenir un minimum de 10 points ; elle est éliminatoire pour l'obtention du certificat B1EA.

Par la suite, la moyenne de l'examen oral sera calculée entre cet 'exercice et celui de la « Compréhension de l'oral ».

a) Présentation du candidat

Le candidat évoquera son quotidien, en répondant aux questions posées par le jury. Il évoquera des thèmes familiers durant environ une minute.

b) La présentation orale d'un document

On donnera à chaque candidat un sujet différent par écrit, qu'il leur faudra étudier pendant dix minutes. A tour de rôle, chaque candidat devra ensuite présenter le document qui lui aura été échu pendant quatre minutes environ en tenant compte des éléments suivants :

=> procéder à une présentation du texte

=> décrire les points principaux du contenu

=> proposer un avis ou un développement du sujet, propre au candidat.

Chaque candidat devra également montrer qu'il a bien compris la présentation effectuée par le second candidat, en répondant à une question des examinateurs.

c) L'entretien improvisé

Entretien improvisé à partir d'un document iconographique fourni par le jury. Les deux candidats devront échanger et développer un point de vue : sous forme de débat ou bien en complémentarité, pour l'organisation, le commentaire... d'un événement.

A eux deux, les candidats devront échanger et développer un point de vue pendant environ sept minutes.

Kandidatuek 10 bat minutu izanen dute probaren bigarren ariketa prestatzeko. Bi aztertzailez osatu epaimahaiak, binaka entzunen ditu kandidatuak. Probaren iraupena 15 bat minutukoa da, orotara.

20en gain neurtua den proba hau gainditzeko, 10 puntu erdietsi beharko ditu gutienez; proba hau gainditzea baitezpadakoa da B1EA gainditzeko.

Ahozko azterketaren batez bestekoa egingen da gero, ariketa honen eta "Entzunaren ulermena" ariketaren artean.

a) Kandidatuak bere burua aurkeztea

Kandidatua bere eguneroko gai ez arituko da, aztertzailearen galderari erantzunez. Hurbileko gaiak aipatuko ditu guti gora behera minutu batez.

b) Dokumentu baten ahozko azalpena

Kandidatu bakoitzari gai desberdina emanen zaio idatziz, hamar minutuz prestatzeko. Ondotik, kandidatu bakoitzak bere aldi, egokitu zaion informazioaren lau bat minutuko azalpena eman beharko du ondoko elementuak kontuan hartuz:

=> testuaren aurkezpena egitea

=> mamiaren puntu funtsezkoenak deskribatzea

=> iritzi edo gaiaren hedadura posiblea proposatzea kandidatuak bere baitatik.

Kandidatu bakoitzak frogatu beharko du ere, besteak egin duen aurkezpena ulertu duela, aztertzaileak egingen dion galdera bati erantzunez.

c) Bat-bateko elkarrizketa saioa

Aztertzaileek gai bat emanen diete kandidatuei, irudi batez lagundua. Biek gai horri buruz aritu beharko dute elkarlanean. Elkarrizketa gisa beren artean mintzatuko dira, gertakari, prestaketa... bati buruz, eztabaidan ala estrategia komun bat eraikitzeko.

Bien artean, guti gora behera zazpi minutuz arituko dira.

4) Barème

Les procédures suivantes seront prises pour les épreuves écrite et orale :

- Le barème des différents exercices constituant l'examen sera le suivant :

4) Puntuazioa

Azterketa idatzian eta ahozkoan, ondoko prozedura hauek beteko dira:

- Azterketako ariketak eta puntuazioak gisa honetan banatuko dira:

B1 mailako euskara agiriaren azterketa: proben puntuazioa			
Azterketa-probak	Ariketa	Gehienez lor daitezkeen puntuak	Gaiztuzko gutxienez lortu behar diren puntuak
Proba idatziak	1) Idazlana	30	15
	2) Irakurriaren ulermena	30	15
	1. ariketa		
	2. ariketa		
	3. ariketa		
	Idatzia orotara	60	36
Ahozko probak	1) Entzunaren ulermena	30	
	1. ariketa		
	2. ariketa		
	3. ariketa		
	2) Ahozko adierazpena: aurkezpenak + elkarrizketa	20	10
	1. ariketa: kandidatuaren aurkezpena		
	2. ariketa: dokumentu aurkezpena		
3. ariketa: elkarrizketa			
	Ahozkoa orotara	50	25
Azterketa orotara		110	

Examen de niveau B1 de langue basque : Notation des épreuves			
Types d'épreuves	Exercice	Exercice noté sur :	Note requise pour être reçu(e)
Epreuves écrites	1) Rédaction	30	15
	2) Compréhension de l'écrit	30	15
	Exercice 1		
	Exercice 2		
	Exercice 3		
	Total écrit	60	36
Epreuves orales	Compréhension orale	30	
	Exercice 1		
	Exercice 2		
	Exercice 3		
	Expression orale : présentations + entretien	20	10
	Exercice 1 : présentation personnelle		
	Exercice 2 : présentation de document		
Exercice 3 : dialogue			
	Total oral :	50	25
Total général		110	

- Le résultat final sera accompagné d'une mention Très Bien/Bien/Assez Bien/Reçu ou Non admis.

- Le candidat doit être reçu à l'écrit et à l'oral pour valider l'examen ; la note de 36/60 est nécessaire pour être reçu à l'écrit.

- La non obtention de la moyenne à l'exercice de rédaction est éliminatoire.

- La non obtention de la moyenne à l'épreuve de l'expression orale est éliminatoire.

5) Consultation de copie

Si un candidat qui n'a pas été reçu à l'examen souhaite consulter sa copie, il peut en faire la demande, à la date fixée à cet effet par le Comité Scientifique.

6) Candidats handicapés

Afin que les candidats à besoins spécifiques puissent passer les épreuves dans des conditions équitables, le Conseil Scientifique mettra en place les moyens nécessaires, tant en ce qui concerne la durée que les moyens, sans modifier le contenu des épreuves, pour maintenir le niveau d'examen requis ; à condition que la demande soit formulée et l'avis médical présenté dans les délais d'inscription.

- Azken emaitza Bikain/Ongi/Aski Ongi/Gainditua edo Ez gainditua izanen da.

- Idatzia eta ahozkoa gainditzea baitezpadakoa da; azterketa idatzia gainditzeko 36/60ko nota behar da.

- Idazlana gainditzea baitezpadakoa da azterketa idatzia gainditzeko.

- Ahozko adierazpena gainditzea baitezpadakoa da ahozko azterketa gainditzeko.

5) Kopien kontsulta

Azterketa gainditu ez duen kandidatu batek bere azterketa ikusi nahi balu, Batzorde Zientifikoak finkatuko duen datan egin lezake.

6) Balio urritasunak

Balio-urritasun bat duten kandidatuak B1EA azterketa berdintasunez egiteko parada ukan dezaten, Batzorde Zientifikoak beharrezko jotzen dituen egokitzapenak ezarriko ditu, denboran nahiz baliabideetan, azterketaren edukia aldatu gabe eta eskatu beharreko gaitasun-maila murriztu gabe betiere; kandidatuak eskaera eta beharrezko mediku-agiria izen-emate epeetan helarazi beharko ditu.